

EMF ORIENTAZIO MARTXA 2019

2019ko abenduak 1ean, igandea, Euskadiko Mendi Federazioaren Orientazio Ibilaldia ospatuko da. Aurten Sodupen izango da.

Ibilbidea gutxi gora behera Sodupe eta Zalla artean dauden mendien inguruan izango da eta bertan baso ezberdinak, larreak eta guda zibileko aztarnak ikusteko aukera izango duzue.

Bi ibilbide egongo dira. Luzea, 14 km-koa, 3-4 orduetan oinez egin daitekena eta motza, 7 km-koa, familiarekin doazen mendizaleentzat, 1:30-2 ordukoa.

Zuen ibilbidea aukeratu zuen ibiltzeko gogoen eta sasoiaren arabera. Bakarrik, taldeka edo familian apuntatu zaitezke. Garrantzitsuena ibilbide polit honetaz gozatzea izango da.

Irteerak

Martxa luzeko parte hartzaileak goizeko **8:30-9:20en artean hartuko dira Sodupeko frontoian. 9:30etan** (puntualak izan, mesedez) parte hartzaileak antolakuntzak jarritako **autobusetan irteerara** (Rigadas auzora) eramango ditugu. Mapak 10etan banatuko ditugu eta berehala irteera emango dugu. Helmuga 14:30-etan itxiko da.

Martxa motzako parte hartzaileak goizeko **9:30-10:20en artean hartuko dira Sodupeko frontoian. 10:30etan** (puntualak izan, mesedez) parte hartzaileak antolakuntzak jarritako **autobusetan irteerara** (San Cosme basilizara) eramango ditugu. Mapak 11etan banatuko ditugu eta berehala irteera emango dugu. Helmuga 14:30-etan itxiko da.

Bi irteeretan hitzaldi laburra izango dugu orientazio oinarriak adierazteko .

Egitaraua

- 8:30-9:20: Martxa luzeko parte hartzaileen harrera
- 9:30: Martxa luzeko autobusak
- 10:00: Martxa luzeko mapen banaketa, azalpena eta irteera
- 9:30-10:20: Martxa laburreko parte hartzaileen harrera
- 10:30: Martxa laburreko autobusak
- 11:00: Martxa laburreko mapen banaketa, azalpena eta irteera
- 14:30: Helmugaren itxiera
- 13:30 etatik aurrera indaba-jana Sodupeko frontoian

Ibilbideak, distantziak eta desnibelak

- Laburra: 7 km 125+ 225-
- Luzea: 14 km 300+ 650-

Mapak 1:20.000 eskala izango du. Bertan sestrakurbak eta errepede, bide eta bidezidor nagusiak azalduko dira. Horretaz gain beste erreferentzia batzuk azalduko dira (errekak, tontorrak, ...), ibilbidea errazteko.

Martxa betetzeko bi ibilbideetako bat bete beharko da. Parte hartzaileek mapa bat jasoko dute; bertan bilatu behar dituzten puntu guztiak eta haien ordena izango dituzte.

Orientatzeko modu bakarrak mapa irakurtzea eta iparrorratza izango dira. Ez dira ez koordinadak ezta altitudea ere emango. Ez da GPSaren laguntza beharko.

Mapan hainbat laukitxo izango dituzue. Bertan baliza bakoitzean dagoen pintzarekin dagokion laukitxoa zulatu beharko duzue. Hau da, sistema klasikoa erabiliko da.

Derrigorrez helmugatik pasatu beharko da antolatzaileek jakin dezaten. Nahiz eta ibilbide osoa ez bete, helmugatik pasatu beharko da edo bestela antolatzaileei abisua eman beharko zaie 688 81 36 58 telefonoan.

Bukatzean dutxak eta indaba-jana egongo da helmugan, Sodupeko frontoian.

Ibilaldi ez lehiakorra izango denez, ez da sailkapenik egongo.

Ekipamendu pertsonala

Iparrorratza eta mendian ibiltzeko arropa eroso. Motxila bat urarekin, jateko zerbait, zira, txilibitua, mugikorra bateriarekin... Hau da, mendiko irteera normal baterako materiala. Martxaren data kontuan izanez, komenigarria litzateke neguko ekipamendua eramatea.

Prezioak

- Mendi Federatuak: 5 €
- Orientazio Federatuak: 5 €
- Ez Federatuak: 7€ (proban parte hartzeko derrigorrezkoa den kirol-asegurua barne)
- Adingabekoak federatuak: Doan
- Adingabekoak federatu gabe: 2€ (proban parte hartzeko derrigorrezkoa den kirol-asegurua barne)

Izen-emateak eta Epeak

Izen emateak EMF web orrialdearen bitartez egingo dira azaroaren 27 23:59ak baino lehen. Proban izena emateko MODU BAKARRA da, baita ere asegurua duten adingabekoek.

Lehen 200 partehartzaileek iparrorratza baten oparia izango dute.